



OHIKO PLENORAKO DEIA.

LEKUA: Altzoko Udaletxea

EGUNA: 2026ko urtarrilak 12, astelehena,

ORDUA: arratsaldeko 19:00etan.

G A I - Z E R R E N D A

- 1.- AURREKO AKTEN ONESPENA, HALA BADA.
- 2.- ERREPOSIZIO ERREKURTSOARI ERANTZUTEA: CMO-VALVES-ek 2025eko ZABOR TASAREN AURKA JARRITAKOARI.
- 3.- PERTSONALA:
 - 2026ko LAN EGUTEGIEN ONESPENA HALA BADA
 - IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAREN ESKAERA, SOLDATARI BURUZ
- 4.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 5.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERIAREN BERRI EMATEA.
- 6.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Altzon, 2026ko urtarrilaren 7an
Alkateak: Xabier Olano Jauregi



AKTA

2026ko urtarrilaren 12an, astelehenean: Osoko Bilkura.

Altzoko Udaletxean, 2026ko urtarrilaren 12an, astelehenean, arratsaldeko 19:00etan, behean zerrendatzen direnak bertan izanik, Osoko Bilkura burutu da.

Lehendakaria: Xabier Olano Jauregi
Zinegotziak: Ainara Garcia Bravo
Xabier Murua Zubizarreta
Enaitz Aizpitarte Murua
Loli Arandia Azpeitia
Jaione Galarraga Zabala
Alaitz Bilbao
Idazkaria: Olga Urbizu Urreaga

G A I - Z E R R E N D A

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA, HALA BADA.

Aho batez onartu dira 2025eko abenduaren 5 eta 16ko Osoko Bilkuretako aktak.

2.- ERREPOSIZIO ERREKURTSOARI ERANTZUTEA: CMO-VALVES-ek 2025eko ZABOR TASAREN AURKA JARRITAKOARI.

Amategialdea auzoan dagoen industrigunean dagoen CMO-VALVES Enpresak Erreposizio Errekurtsoa aurkeztu du jendaurrean zegoen 2025eko ekitaldiko Zabor Tasaren Erroldan Fiskalean dagoen likidazioaren aurka.

Udalak Espedientea aztertuta, Korporazioa osatzen duten zazpi kideak bertan izanik aho batez Erabaki da:

-Gazteleraz:

Lehenengoa: DESESTIMAR el Recurso de Reposición por los motivos siguientes:

1. No ha lugar a la anulación total de la liquidación practicada porque la misma se ajusta íntegramente a la normativa vigente.
2. La solicitud de emisión de una nueva liquidación basada en la tenencia de contenedores y no en la frecuencia del vaciado de los contenedores sería contraria al espíritu y al texto recogido en el Artº 11.3 de la Ley 7/2022 que obliga a implantar sistemas de pago por generación que reflejen el coste real de las operaciones de recogida, transporte y tratamiento. Parece obvio que el coste real de las operaciones de recogida y transporte es directamente proporcional a la frecuencia y nº operaciones realizadas y no a la mera presencia de los contenedores.
3. En lo que respecta a la entrega de la documentación solicitada, el Ayuntamiento muestra su disposición a facilitar la misma respetando los plazos y disponibilidad de la información:



- El coste real facturado por la Mancomunidad se facilitara una vez se haya recibido la totalidad de las facturas y se proceda a la liquidación del ejercicio 2025.
 - Las tasas aplicadas se encuentran publicadas en el BOG y las liquidaciones en el Padrón que ha estado expuesto al público.
 - La recaudación total del servicio se facilitara asimismo cuando finalicen las labores de recaudación y liquidación de los ingresos del ejercicio 2025.
 - La memoria económica justificativa de la propuesta de modificación de la tasa aprobada en sesión plenaria del 7 de octubre de 2024 ya está disponible por lo que se adjunta a la presente resolución.
4. Ante la solicitud de apertura de un procedimiento para valorar alternativas legales de gestión, este Ayuntamiento muestra su total disposición a valorar conjuntamente con la sociedad mercantil otras alternativas legales que cumplan con la normativa vigente en materia de residuos y medio ambiente.

-Euskaraz:

Lehenengoa: Berraztertzeko Errekurtsoa EZ ONARTZEA, ondorengo motibo hauengatik:

1. Ez da bidezkoa egindako likidazioa erabat deuseztatzea, likidazio hori indarrean dagoen araudiarekin guztiz bat datorrelako.
2. “Edukiontzia edukitzean” oinarritutako likidazio berri bat jaulkitzeko eskaera, eta ez “edukiontzia husteko maiztasunean” oinarritutakoa, 7/2022 Legearen 11.3 artikuluan jasotako testuaren aurkakoa izango litzateke. Izan ere, testu horren arabera, bilketa, garraioa eta tratamendu eragiketen benetako kostua islatzen duten sortzeagatiko ordainketa sistemak ezarri behar dira. Begi-bistakoa dirudi bilketa eta garraio eragiketen benetako kostua egindako eragiketen maiztasunarekiko eta kopuruarekiko zuzenki proportzionala dela, eta ez edukiontzien presentzia hutsarekiko.
3. Eskatutako dokumentazioa entregatzeari dagokionez, Udalak dokumentazio hori emateko prest dagoela adierazten du, epeak eta informazioaren eskuragarritasuna errespetatuz:
 - Mankomunitateak fakturatutako benetako kostua faktura guztiak jaso eta 2025eko ekitaldia likidatu ondoren emango da.
 - Aplikatutako tasak GAOn argitaratuta daude, eta tasen likidazioak jendaurrean ikusgai egon den eroldan.
 - Halaber, zerbitzuaren bilketa osoa 2025eko ekitaldiko diru-sarrerak biltzeko eta likidatzeko lanak amaitzen direnean emango da.
 - 2024ko urriaren 7ko osoko bilkuran onartutako tasa aldatzeko proposamena justifikatzen duen memoria ekonomikoa eskuragarri dago jada, eta, beraz, ebazpen honekin batera doa.
4. Kudeaketarako legezko alternatibak baloratzeko prozedura bat irekitzeko eskaeraren aurrean, Udal hau guztiz prest dago hondakinen eta ingurumenaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten beste legezko aukera batzuk merkataritza-sozietatearekin batera baloratzeko.



Bigarrena: Aurreko puntuko Erabakia CMO-VALVES Enpresari bi hizkuntzatan jakinaraztea.

3.- PERTSONALA:

- 2026ko LAN EGUTEGIEN ONESPENA HALA BADA

Alkateak aurkeztu ditu pertsonalaren lan egutegiak, jardun osoa urtean 1592 ordukoa dela kontutan izanik. Beraietan ageri da:

1) Udal bulegoa itxita egongo dela

- Abuztuaren 10etik 26ra (biak barne).
- Abenduaren 24 eta 31
- 2 zubietan: Martxoaren 20an eta Abenduaren 7an

2) AM.A.I.ek martxoaren 31an amaitzen duela lan kontratua eta A.M.A-ek ere bai. Zerbitzuen emakidari begiratuta: Eraikinen garbiketa zerbitzua urriaren amaiera arte eskaini beharko litzateke eta Liburutegiko zerbitzua ekainaren 19 arte.

Halaber, Udalak erabakita dauka horrelako zerbitzuak eskaintzeko lan pilaketak daudelako eta titularrak oporrak dituztenean denboraldi baterako lan kontratuak egin beharko direla, beti ere, herrian urtean behin gutxienez deialdia eginez.

Gauzak honela Udalak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa: pertsonalaren 2026ko lan egutegiak aurkeztu diren bezala onartzea.

Honen ondorioz ontzat ematea: Udal bulegoa itxita egongo dela

- Abuztuaren 10etik 26ra (biak barne).
- Abenduaren 24 eta 31
- 2 zubietan: Martxoaren 20an eta Abenduaren 7an

Itxiera egoeraren berri herritarrei ematea erabaki du Udalak.

Bigarrena: AM.A.I. lan kontratua luzatzea 2026-09-30 arte. Halaber, A.M.A.-i lan kontratua luzatzea 2026-06-19 arte. Bi kontratuak luzatzen dira hasitako zerbitzuak amaitzeko eta AM.A.I.-i lan berdina egiten dituen pertsonalaren oporaldietan zerbitzua eskaintzeko.

- IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAREN ESKAERA, SOLDATARI BURUZ

O.U.U.-k, interinoki Idazkaritza-Kontuhartzaile plaza betetzen duenak, urtarrilaren 5ean eskaera aurkeztu du, antzeko Udaletan baino ordainsari bajuagoa duela orokorrean eta igoera eskatu du.

Honen aurrean Udalak aho batez **ERABAKI DU** (idazkari-kontuhartzailea pleno aretotik irten egin da erabakia hartzeko unean:

Lehenengoa: “osagarri espezifikoa” edo ordainsarien “nibela” 20tik 22ra igotzea.

Bigarren: “destino osagarria” ere igotzea, 21etik 22ra, hau da, erabakitako nibelaren pare jartzea. Destino osagarriak ez du ekonomikoki igoerarik eragiten, kontsolidaziorako balio du.



Hirugarrena: Aldaketa edo igoera hau onartzea eta 2026ko urtarrilaren 1etik aplikagarria izan dadila . Horretarako, oraindik jendaurrean dagoen 2026ko Lanpostuen Zerrendan aurreko bi puntuetan erabakitakoa argitaratuko da.

4.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak aurreko Plenoaz geroztik erabaki dituen Dekretuen berri eman du, 2025/66tik eta 70 arte (biak barne) eta 2026/1, Dekretuak irakurritz. Gainontzekoak jakinaren gainean gelditu dira.

5.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERIAREN BERRI EMATEA.

Gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu eta onartu diren 3.000 €tik gorako fakturarik ez da aurkeztu.

Diru laguntzak:

- Arrima Baserritar Elkarteari; 2026 urte osorako 4.800 € ordaintzea, Egileor aldean alokatuta daukaten nekazal pabiloiaren errenta ordaintzeko. 4 zatitan ordainduko da hiruhilabeteko 1.200€, ahal dela hasieran, beraz urtarrilaren hasieran 1. ordaintzeta egingo zaie.

Puntu honekin amaitzeko, informatu da Altzoko Udaletxean, gaurko egunez, 304.562,24 € daudela bi kontuetan; hauetatik 54.562,24 € eguneroko ordainketak eta sarrerak egiteko eta 250.000 € gordailu kontuan.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez da aipatu eta Alkateak Bilkura amaitutzat eman du iluntzeko 8etan.

Altzon, 2025eko urtarrilaren 29an (2026-02-02ko Osoko Bilkuran onartuta)
Alkateak o.e.: Xabier Olano Jauregi Idazkariak: Olga Urbizu Urreaga